



## EUSKARAREN OFIZIALTASUNA ZALANTZAN



**Mallabiko Udalak 2015eko otsailaren 27an izandako Osoko Bilkurak aho-batez honako adierazpen hau onartu zuen:**

Espainiako Gobernuaren ordezkaria udalen jardunean gauzatzen ari den esku-hartzeak Euskararen ofizialtasuna zalantzan ipintzen ari da. Egoera honen aurrean, Mallabiko Udalak adierazi nahi du:

- Mallabiko Udalak euskara sustatzeko egiten ari den ahalegina berretsi nahi du. Euskararen bidea beste eragile eta instituzioekin elkarlanean garatzeko konpromisoa adierazi nahi du.
- Gure herria berezia da hizkuntzaren ikuspegitik. Horregatik, udalerrri euskaldunak, euskararen arnaguneak indartzeko, politika eraginkorrak abian jartzen saiatuko gara; hizkuntza politika euskara sailetik harago eraman, eta euskararen arnaguneak duten garrantzia aintzat hartuta, politika orokorraren erdigunean kokatzen saiatuz.
- Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak udalen jardunean eta bereziki euskara sustatzeko neurrien aurka izandako esku hartzea salatu nahi dugu. Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariaren figura eta lana bertan behera uzteko eskatzen dugu.
- Eusko Jaurlaritzari eskatu nahi diogu euskara sustatzeko ahaleginean ari garen udalerrri euskaldunetako Udalak babestu ditzan.
- Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak deituta, euskaldunoi ezartzen zaizkigun oztopoak salatu eta euskaraz bizitzeko nahia aldarrikatzeko, Mallabiko Udalak herritarrei dei egin nahi diegu mobilizazioetan parte hartzeko.



EUSKARAREN OFIZIALTASUNA ZALANTZAN

